

**ERANSKINA: 2025eko deialdiaren oinarriak, Nafarroako Foru Komunitateko ehizarako lehenbiziko lizentzia administratiboa lortzeko beharrezko gaitasun-probak egiteko.**

**1. oinarria. Xedea**

Ebazpen honen xedea da prestakuntza-ikastarorako eta probetarako deialdia egitea ehizarako gaitasun-ziurtagiria lortzeko. Ziurtagiri hori beharrezkoa da Nafarroako Foru Komunitateko ehizarako lehenbiziko lizentzia administratiboa lortzeko (Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak ematen du lizentzia hori).

Izangai bakoitzak bi deialdi izanen ditu ehizarako gaitasun proba gainditzeko. Probara aurkezteko, nahitaezkoa da prestakuntza ikastaroa egitea.

**2. oinarria. Izen-ematea**

**Izena emateko epea**

Lehenbiziko lizentzia lortzeko beharrezko gaitasun-probetan izena emateko epea, bai lehen deialdian eta bai bigarrenetan, baita aldez aurretiko prestakuntza-ikastaroa egiteko ere, bakarra izanen da, **15 egunekoa**, deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita.

**Aurkezteko lekua**

Honela aurkezten ahal dira izena emateko agiriak:

- Erregistro telematikoaren bidez, <https://www.navarra.es/eu/ingurumena> webgunean, Nafarroako Gobernuaren tramiteen katalogoko "Ehiza-azterketa egiteko deialdia" fitxaren estekara sartuta, helbide honetan:

<https://www.navarra.es/eu/tramiteak/on/-/line/ehiza-azterketa-egiteko-deialdia?pageBackId=7571695>

- Aurrez aurre, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuko erregistroan (González Tablas kalea 9, 31005 Iruña), Nafarroako Gobernuaren Erregistro Orokorrean, Nafarroako Gobernuaren beste edozein erregistro-bulegotan, edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan adierazitako bestelako bideren bat erabiliz.

Eskabidea posta-bulego batean aurkezten bada, gutun-azal ireki batean aurkeztuko da, postako langileek, ziurtatu aurretik, data eta zigilua jar ditzaten.

**Izena emateko dokumentazioa:**

- a) Prestakuntza-ikastaroa eta/edo azterketa egiteko inskripzio-orria, deialdi honen eranskinetako ereduaren arabera.
- b) Nortasun-agiri nazionalaren, pasaportearen, bisaren edo atzerritarren nortasun-txartelaren fotokopia.

- c) Azterketa egiteko 12,48 euroko tasa ordaindu dela ziurtatzen duen ordainketa-gutuna, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren Erakunde Autonomoen tasa eta prezio publikoei buruzko otsailaren 11ko 2/2021 Foru Legean ezarri bezala.

Tasa ordaindu izanaren frogagiria aurkezteaz gain ezinbestekoa izanen da inskripzio-eskabidea behar den epean eta moduan aurkeztea.

Tasa ez bada ordaintzen, izangaia baztertu egingen da.

Ikastaroa edo azterketa ez egiteak ez du tasa itzultzeko eskubiderik sortuko.

- d) Hala badagokio, probak egokitzeko eskaera justifikatzen duten egiaztagiriak.

Eskaera-orria eta ordainketa-gutuna eskura egonen dira “Ehiza-azterketa egiteko deialdia” fitxan, Nafarroako Gobernuaren tramiteen katalogoan, helbide honetan:

<https://www.navarra.es/eu/tramiteak/on/-/line/ehiza-azterketa-egiteko-deialdia?pageBackId=7571695>

Baita Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuko bulegoetan ere (Gonzalez Tablas kalea 9).

### **3. oinarria. Izangaien onarpena eta erreklamazioak.**

Eskaerak aurkezteko epea bukatutakoan, onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda argitaratuko da “Ehiza-azterketa egiteko deialdia” fitxan, Nafarroako Gobernuaren tramiteen katalogoan, helbide honetan:

<https://www.navarra.es/eu/tramiteak/on/-/line/ehiza-azterketa-egiteko-deialdia?pageBackId=7571695>

Halaber, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuko iragarki-taulan argitaratuko da (González Tablas kalea 9, Iruña).

Bazterturik gelditu direnek bost egun naturaleko epea izanen dute, behin-behineko zerrendak argitaratzen direnetik, erreklamazioak aurkezteko eta, akatsik egin badute, horiek zuzentzeko.

Erreklamazioak ebatzi eta gero, izangai onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda argitaratuko da.

Azterketara aurkezteko deialdian eskatzen diren baldintzak betetzen dituzten pertsonen zerrenda eta azterketa egiteko eguna, ordua eta tokia “Ehiza-azterketa egiteko deialdia” fitxan argitaratuko dira, Nafarroako Gobernuaren tramiteen katalogoan, helbide honetan:

<https://www.navarra.es/eu/tramiteak/on/-/line/ehiza-azterketa-egiteko-deialdia?pageBackId=7571695>

Halaber, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuko iragarki-taulan argitaratuko da (González Tablas kalea 9, Iruña).

Lehen deialdiko azterketa egin eta gero, emaitzak eta bigarren deialdiko azterketan onartutakoen zerrenda argitaratuko dira, baita bigarren azterketa zer egunetan, zer ordutan eta non egingen den ere.

Zerrenda horiek “Ehiza-azterketa egiteko deialdia” fitxan argitaratuko dira, Nafarroako Gobernuaren tramiteen katalogoan, helbide honetan:

<https://www.navarra.es/eu/tramiteak/on/-/line/ehiza-azterketa-egiteko-deialdia?pageBackId=7571695>

Halaber, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuko iragarki-taulan argitaratuko da (González Tablas kalea 9, Iruña).

#### **4. oinarria. Prestakuntza-ikastaroa**

Ikastaroaren helburua da *Nafarroako ehiztarien azterketa prestatzeko eskuliburua* (2013ko bertsioa) eta *Galderen liburua* (2016ko bertsioa) lantzea, baita izangaiei eskuliburuko edukiak ulertzen laguntzea ere, ezagutza handitu eta azterketa gaingaitu dezaten. Halaber, helburu du etorkizunean ehizan ariko direnentzat baliagarriak izanen diren ezagutzak irakastea.

- Gaitasun-probak gaingaitu nahi dituzten izangai guztiek **nahitaez** egin behar dute ehizaren arloko prestakuntza-ikastaroa.

2008. urtetik aurrera prestakuntza-ikastarora joan izanaren ziurtagiria eskuratu duten izangaiek ez dute prestakuntza-ikastaroa berriz egin beharko, baina eskubidea izanen dute hura egiteko, ikasgela birtualaren bitartez.

- Ikastaroa online egiten da.

Eskatzaileei posta elektronikoaren bidez bidaliko zaie nola sartu behar duten ikasgela birtualera, izen-ematea baliozkotu ondoan. Ikasgela birtuala erabiltzeko jarraibideak eskura egonen dira “Ehiza-azterketa egiteko deialdia” fitxan, Nafarroako Gobernuaren tramiteen katalogoan, helbide honetan:

<https://www.navarra.es/eu/tramiteak/on/-/line/ehiza-azterketa-egiteko-deialdia?pageBackId=7571695>

- Ikastaroa egiten dutenek ziurtagiri bat jasoko dute. Ziurtagiria nahitaezkoa da azterketara aurkeztu ahal izateko.
- Azterketaren eguna baino 10 egun natural lehenago bukatuko da ikastaroa egin eta ziurtagiria eskuratzeko epea.
- Azterketa-deialdi bakoitzean onartutakoen behin-behineko zerrenda aldeztu aurretik eta behar besteko denboraz argitaratuko dira. Erreklamazioak egiteko bi egun balioduneko epea izanen da, zerrendak argitaratzen direnetik. Ondoren, behin betiko zerrendak argitaratuko dira.

#### **5. oinarria. Probak egitea**

##### **Probaren deskribapena**

Prestakuntza-ikastaroaren egin izanaren ziurtagiria eskuratzen duten izangaiek bakarrik egiten ahal dute azterketa.

Izangaiek nortasun-agiri nazionala, pasaporte edo nortasuna egiaztatzeke lege onartutako beste edozein agiri eramanen dute azterketara, eta tinta beltzeko edo urdineko boligrafoa.

Azterketatik bazterturik geldituko dira adierazten diren egun, ordu eta tokian agertzen ez diren izangaiak, arrazoia edozein dela ere, edo identitatea behar bezala frogatzen ez dutenak.

Azterketan test moduko 30 galdera izanen dira, teorikoak, idatziz erantzutekoak, kalifikazio-epaimahaiak alde aurretik aukeratuak 500 galderaren artean.

Erantzun zuzenak puntu 1 balioko dute, eta erantzun oker bakoitzarengatik 1/3 puntu kenduko dira. Erantzun gabeko galderek eta erantzun bat baino gehiago dutenek ez dute punturik emanen, ezta kenduko ere.

“Gai” kalifikazioa lortzeko beharrezkoa izanen da gutxienez 15 puntu lortzea.

Proba hori egiteko, ordubete izanen da.

Azterketa egitean ezin da erabili kalkulagailurik, telefono mugikorrik, smartwatch gailurik edo beste material edo gailurik, tinta beltz edo urdineko boligrafo ez bada.

“Nafarroako ehiztarien azterketa prestatzeko eskuliburua (2013ko bertsioa)” eta “galderen liburua (2016ko bertsioa)” eskura daude “Ehiza-azterketa egiteko deialdia” fitxan, Nafarroako Gobernuaren tramiteen katalogoan, helbide honetan:

<https://www.navarra.es/eu/tramiteak/on/-/line/ehiza-azterketa-egiteko-deialdia?pageBackId=7571695>

Izangai bakoitzak bi deialdi izanen ditu proba gainditzeko.

#### **Probak egiteko eguna eta tokia**

- **Lehen deialdia: 2025eko martxoaren 29an**
- **Bigarren deialdia: 2025eko maiatzaren 10ean**

Izangai bakoitzak zein ordutan joan behar duen adieraziko da deialdi bakoitzean onartutakoen zerrendan.

Probak Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuaren egoitzan egingen dira (González Tablas k. 9. Iruña).

Izangai guztiek eskubidea dute bi deialdietan aurkezteko, baldin eta prestakuntza-ikastaroa egin izanaren ziurtagiria eskuratu badute deialdi honetan ezarritako epeetan.

#### **6. oinarria. Gaingituen zerrenda eta erreklamazioak.**

Proba kalifikatu ondoan, lehen deialdian nahiz bigarrenetan, epaimahaiak izangaien emaitzak zerrenda batean argitaratuko ditu, “Ehiza-azterketa egiteko deialdia” fitxan, Nafarroako Gobernuaren tramiteen katalogoan, helbide honetan:

<https://www.navarra.es/eu/tramiteak/on/-/line/ehiza-azterketa-egiteko-deialdia?pageBackId=7571695>

Halaber, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuko iragarki-taulan argitaratuko da (González Tablas kalea 9, Iruña).

#### **7. oinarria. Kalifikazio-epaimahaia.**

Hauexek izanen dira kalifikazio epaimahaiko kideak:

Epaimahaiburua: Cristina Arana Marquina andrea, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuko Ehiza Kudeaketarako Ataleko burua.

Ordezko epaimahaiburua: Fermín Olabe Velasco jauna, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuko Basoen eta Ehiza Kudeaketaren Zerbitzuko zuzendaria.

Epaimahaikidea: M.<sup>a</sup> Carmen Primo Alfageme andrea, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuko Ehiza Kudeaketarako Ataleko teknikaria.

Ordezko epaimahaikidea: Esperanza Ursúa Sesma. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuko Ehiza Kudeaketarako Ataleko teknikaria.

Epaimahaikide-idazkaria: María Rosario Erviti Esparza andrea, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuko Basoen eta Ehiza Kudeaketaren Zerbitzuko administraria.

Ordezko epaimahaikide idazkaria: María García López De Arana andrea, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuko Basoen eta Ehiza Kudeaketaren Zerbitzuko administraria.

Epaimahaia ezin izanen da eratu, ezta jardun ere, kideen gehiengoa bertan ez bada.

Epaimahaiak gehiengoz ebatziko ditu deialdiaren oinarriak interpretatzeko eta aplikatzeko moduari buruz sortzen diren gorabehera guztiak.